

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Betiko istorioak haurrentzat



Xabier Etxaniz Erle



Txitxarra eta inurria JEAN DE LA FONTAINE

Ilustratzailea: Ximena Maier
Itzultzailea: Iraia Yetano
Moldaketa: Eva Aubarell
Ibaizabal, 2017
18 orrialde.
Haurrentzat.

Ibaizabal etxeak *Ipuin klasikoak* bilduma argitaratzeari ekin berri dio (oraintsu Ereinek *Miniklasikoak* egin duen bezala) eta gure inguruko tradizioan ezagunak diren hainbat istorio haurrei eskaini. Sei dira orain arte plazaratu diren lanak (*Bremengo musikariak*, *Ahatetxo itsusia*, *Landako saga* eta *hiriko saga*, *Hiru txerrikumeak*, *Aladin eta kriseilu miragarria*, eta azkenik, hona ekarri dugun *Txitxarra eta inurria*). Ikus daitekeen bezala istorio ezagunak dira, herrikoiak eta gure inguruko egile eta tradizio ugaritatik (Grimm, Andersen, kultura arabiarra...) iritsi zaizkigunak.

Txitxarra eta inurria La Fontaineren alegia ezagunetarikoa bat dugu. Udan “alferkeriatan” ibiltzen den txitxarrak eta lanean dabilen inurriak nola egiten dioten aurre negu gordinari. Kontakizunaren hasieratik adierazten zaizkigu pertsonaia bien ezaugarriak: “Inurriak uda osoa eman du garia, haziak eta apurak inurritegira eramaten. Badakizue zergatik dagoen hain lanpetuta? Negurako jana biltzen du. Hotza etortzen denean, janaritegia beteta izango du. Buruargia da gero inurria!”; “Inurriaren alboan txitxarra bizi da. Uda kantu kantari pasatzen du: txir-txir, txir-txir, txir-txiiiiir... Siesta orduan, txitxarra kantari aritzen da, eta haren kantuarekin denek goxo-goxo egiten du lo itzalpean. Txitxarrak ez du neguan pentsatzen”.

Irakurleak ezagutuko duen moduan negua iristean txi-

txarrak janaria eskatu beharko dio inurriari, eta eskarmentua hartu duela kontuan izanik, hurrengo udan berak ere lan egingo duela adierazi. Baina horrekin batera, bere musikari esker, kantuari esker, gainerakoek edarki deskantsatu ahal izan dutela adierazten dio txitxarrak inurriari. Alegia, lan fisikoaz gain arte lanak ere baduela garrantzia eta bere tokia mundu honetan. Elikatzeko modu asko daudela, batzuk elikagai fisikoak dira, beste batzuk, aldiz, gogoa elikatzen dutenak.

Istoria nahiko sinplea da, erraz irakurtzen dena (letra larriz idatzita dago irudi ugariz lagunduta dagoen testua) eta liburuaren amaieran, gainera, bada ipuin, istorio edo alegiaren bertsio osoago bat helduak irakurtzeko. Beraz, istorioaren bi bertsio ditugu, laburtua (letra larriz eta ezkerreko orrietan ageri dena, eskuineko irudiak lagunduta) eta osoa, liburuaren amaieran. Gainera, liburuek duten formatuak lagundu egiten du haurrak, aurrerago, irakurketa autonomoa egiteko; hau da, istorioa behin ezagututa berak bakarrik “irakurtzeko moduan” irudien bidez. Eta, jakina, irakurtzen hasi direnek, beraiek bakarrik testua irakurtzeko ere bai.

Abiada bizian doan gizarte honetan gure sustraia, gure ingurukoenak eta hauekin guztiekin egiten dugun oinarria sendotzeko bilduma egokia, eta gomendagarria. ■



Jean de La Fontaine (Château-Thierry, 1621– Paris, 1695) poeta eta fabulagile frantziarra.